



**AYUNTAMIENTO DE UHARTE ARAKIL
UHARTE ARAKILGO UDALA**

UHARTE-ARAKIL

3/2022 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespena

2022ko apirilaren 25eko osoko bilkuran 3/2022 aurrekontu-aldaketa hasiera batez onesteko erabakia hartu zen eta 2022ko maiatzaren 2an udaleko iragarki oholean hasierako onespena iragarri zen.

Jendaurrean egon den bitartean ez da alegaziorik egin; hortaz, aldaketa behin betikotzat jo da, eta argitara ematen da, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Aplikatu beharreko araudia: irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikulua; foru dekretu horren bidez garatu zen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan.

3/2022 AURREKONTU ALDAKETA

Ez ohiko kreditua sortzea, 21.917,64 eurokoa, aurrekontu-aplikazio honetan: “3420 22740 Sorosleak eta igeriketako monitorea kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa 21.917,64€”.
Honako honen kargura finantzatuko da:

87000	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	21.917,64€
	GUZTIRA	21.917,64€

Uharteko Arakilen, elektronikoki sinatzen den egunean.–Alkatea, Jose Domingo Huarte Baleztena.

